

-FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Gure helburu nagusietako bat arropari beste aukera bat ematea da, materialak birziklatuz. Horrela, jendeari ingurumena nolabait zaintzea eragingo genioke.

Beraz antzeko produktuak egiten dituzten enpresekin harremanetan jarriko ginateke, esaterako, EcoAlf edo Editage eta zenbait material lortzeko hornitzaileekin harremanetan jarriko gara ere.

Gainera lehiakide ez diren beste enpresa batzuekin jarriko gara harremanetan jakintza konpartitzeko. Gure enpresa txikia denez eta ezagutza handirik ez dugunez, oso ondo etorriko litzaiguke aholkuren bat jasotzea.

Horrez gain gure enpresaren funtsezko itun batzuk gure artekoak izango dira, hau da, bakoitzak bere gaitasun bat jarriko du negozioa aurrera eramateko.

-Maria Herrero: diseinua eta jostura egiteko gaitasuna.

-Nora Ramos: administrazioa kudeatzeko gaitasuna.

-Naira Pinilla: marketinga egiteko gaitasuna.

-Naia Carballa: jendearekin komunikatzeko gaitasuna.



Beste enpresekin harremanak izatea oso garrantzitsua da enpresa baten garapenerako. Negozio-eredu bat hobetzeko, arriskuak murrizteko edo baliabideak lortzeko beste enpresa batzuekin aliantzak izatea egokia da. Baina guretzako garrantzitsuena da beste enpresengatik ezagutza edo aholkuak jasotzea gure enpresa hobetzeko.

